

PLaza

44 ■ Txillida, Hernanitik Baionara

'Haizearen orrazia'-ren 30. urteak ospatzeko, Txillida Lekuko erakusketaren parte bat jarri dute Euskal Museoa.

Xabier Montoiak eta Fernando Reyk irabazi dute Euskadi literatura saria

'Euskal Hiria sutan' lanak irabazi du sorkuntzako saria, eta 'Pereirak dioenez'-ek itzulpengintzakoa

ARANTZAZU MUÑOZ

Donostia

Xabier Montoiak eta Fernando Reyk irabazi dituzte aurtengo Euskadi literatura sariak. *Euskal Hiria sutan* lanarengatik (Elkar), euskarazko literaturari dagokion saria eman diote Montoiari. *Pereirak dioenez* lanarengatik (Igela), hau da, Antonio Tabucchiaren *Sostiene Pereira* nobelaren itzulpenarengatik, saritu dute, berriz, Rey.

«Unibertso hurbil baten erakusleio bizi bizia eta ausarta» aurkeztu duelako eman diote lehengo saria Montoiari. Hala adierazi du Karlos Otegi euskarazko literaturako Euskadi sariko epaimahai buruak. «Leialtasunaren eta naturaltasunaren arteko oreka mantentzen» jakin duelako irabazi du, berriz, itzulpengintzako saria Reyk. Horixe azaldu du Bakartxo

Arrizabalaga itzulpengintzako Euskadi sariko epaimahai buruak.

Euskal Hiria sutan ingurune ezagunean gertagarri diren istorioen bilduma nabarra da, eta istorio horietan sentimendu eta jokak gordin eta xamurren mosaiko zabala eta aberatsa eskaintzen du, Karlos Otegi epaimahai buruaren esanetan: «Hau guztia, girotze, tonu, erritmo, egoera eta pertsonaien bariazio lortuan idazkera zuzen eta sarkorraz eta oso modu irakurgarrian egina dago».

Horrezaz guztiaz gain, iradokizalea izateagatik ere saritu dute Montoiak: «Istorioen aniztasuna ideia edo proiektu gidari baten harira egituratu du, borborrean da goen euskal hiri bati buruzko jarrerak akuilagarria, inarroslea eta azken finean mundu ikuskera pertsonala zirriborratuz».

SARIARI UKO EGINDAKOA. Aurreko maiatzean 36 idazle eta itultzailek beren obrak Euskadi sarietarako aintzat har ez zitzaizkizuten eskatu zuten. Baina, sarien inguruko lehen polemika 2003an iritsi zen plazara, Koldo Izagirrek sarietarako arau bat auzitan jarri zuenean. Izagirre-
ren itzulpen lan bat finalisten arte-
rako hautatu zuten. Finalista guz-
tiek, finalista izango baziren, agiri
bat sinatu behar zuten esanaz
arau guztiak onartzen zituztela.
Izagirrek prozedurari «umilian-
tea» iritzi zion eta finalisten arte-
tik kanpo geratu zen.

Xabier Montoiak eta Jon Alonsok Izagirrek bezala jokatu zuten hurrengo urtean, euskaraz sortu-
tako literaturaren alorrean. Haien
lanak finalista izan gabe geratu zi-
ren egileek ez zutelako araudiak
eskatzen zuen onepenez agiria sina-
tu.

2005eko maiatzean, Izagirrek sa-
latutako araua aldatu egin zuen
Jaurilaritzak, idazleen, itultzaile-
en eta editoreen elkarteekin ados-
tuta. Arau berriaren arabera, egi-
leak ez du ezer sinatu beharrik fi-
nalista edo saridun izan aurretik.



Unibertso hurbil baten erakusleio bizia eta ausarta egin duelako saritu dute, besteak beste, Montoiak. JON HERNÁEZ / ARCAZHI PRESS



Fernando Rey, itzulpengintzako Euskadi saria jasotzen Donostian *Pereirak dioenez* lanarengatik. JON URRUTIA / ARCAZHI PRESS

«Irakurleak lana gustura, oztoporik gabe irakurriko duela jakitea da saririk onena»

A. M.
Donostia

Jatorrizko bertsoari jarraituz, euskara betean ari delako saritu dute, besteak beste, Fernando Rey. «Estiloz eta itxuraz erraza da; bai-
na aldi berean ongi landua eta eus-
kara behartu gabeen idatzia», adierazi du Bakartxo Arrizabala-
ga itzulpengintzako Euskadi sari-
ko epaimahai buruak.

Rey gustura dago itzulpengin-
tzako Euskadi saria eman diotela-
ko, poza ematen baitio itzulpen-
gintzaz dakitenen ahotik lanean
ongi ari dela entzuteak. Dena den,
ez du uste sariak ezer askorik alda-
tuko duenik: «Orain arte bezala
saiautuko naiz, ahal dudana moduan
ekarpenak egiten kulturari, eus-
kalgintzari eta herri honi. Hala
ere, irakurleek liburua gustura eta
oztoporik gabe irakurri dutela ja-
katea da saririk onena».

Pereirak dioenez lana argitaratu
egin du Reyk, baliabide gutxiarekin
zenbat egin daitekeen erakusten
baitu argitaletxeak. Bere ustez,
Igela lan handia egin du itzulpen-
gintzan, euskararen normalizazio-
aren zutabeetako batean: «Euskal-
gintzan batzutan hitz eta kanpai-
na handiak erabiltzen dira, eta
emaitza? Nik gehiago sinesten dut
lan xume eta saiatuan, hots handi-
ko estrategietan baino».

Pozik dago bestalde, saritutako
lana Antonio Tabucchiaren *Sostie-
ne Pereira* nobelaren itzulpena de-
lako. Beste batzuetan ez bezala, ez
baitu enkarguz egin, plazer hutsez
eta ezeren diktaduraren pean
egon gabe baizik.

LEHIA HANDIA. Bakartxo Arrizabala-
gaz gain, gainontzeko epaimahai-
ko kideak Karlos del Olmo, Irene

Arrarats, Mikel Hoyos, Josu Ba-
rambones eta Marta Merino izan
dira. «Euskaraz itzulpena gero eta
gehiago zabaltzen ari den mo-
duan, gero eta gehiago kostatzen
zaigu produkzio oparo horren ar-
tean zein den onena erabakitzea,
eta hala gertatu zaigu oraingo ho-
netan ere», azaldu du Arrizabala-
ga.

Baina lortu zuten lau finalistak
topatzea: Mirentxu Larrañaga
Sueskun BERRIA-ko Euskara Tal-
deko kidea, Michael Morpurgoen
Peaceful soldadu-ren itzulpena-
rengatik (Alberdania); Josu Zaba-
leta, John Allen Paulosen *Zenba-
kirik gabe bizi: matematika-ezja-
kintasuna eta haren ondorioak*-en
itzulpenarengatik (EHU); Patxi
Zubizarreta, Nabig Mahfuzen *Mi-
rariaren kalezuloa*-ren itzulpenaren-
gatik (Elkar & Alberdania) eta ira-
bazlea bera.

■ EUSKARAZKO LITERATURA

Finalistak

- Leire Bilbaoen *Ezkatak* (Susa).
- Javi Cilleroren *Ero hiria* (Alberdania).
- Ixiar Rozasen *Negutegia* (Pamiela).
- Joseba Zulaikaren *ETAren hautsa* (Alberdania).

Epaimahaiko kideak

Karlos Otegi (epaimahaiko burua), Jon Kortazar, Arantxa Urretabizkaia, Karlos Santisteban, Pello Otxoteko eta Marta Merino (epaimahaiko idazkaria, hautes-
penik gabek).

«Borborrean dagoen euskal hiriari buruzko jarrera akuilagarria eta inarroslea zirriborratzen du»

KARLOS OTEGI
EPAIMAHAIKO BURUA